# BATZAR OROKORRA/ ASAMBLEA GENERAL
# 2017-03-27

**Organoa edo batzordea:** Batzar Orokorra.
**Bilera-mota:** ohikoa.
**Eguna:** 2017/03/27.
**Ordua:** Hasiera, 19:00.
**Tokia:** Urretxuko udaletxeko Portaloia.

**Parte hartu duten Ezkio-Itsasoko zinegotziak:**
José Ignacio Etxezarreta Estala.
José Mª Zumarraga Esnal.
María Luisa Pildain Cenitagoya.
Iñaki Mendiguren Bereziartu.

**Parte hartu duten Legazpiko zinegotziak:**
Koldobike Olabide Huelga, Mankomunitateko lehendakaria.
Javier Iraeta Alvarez.
Eric Galvez Alvarez.
Ane Urkiola Alústiza.
Gorka Iñurritegi Lasa.
Oscar Valbuena Pascual.
Roberto Alonso Yebra.
Alberto Bezunartea Fernández

**Parte hartu duten Urretxuko zinegotziak:**
Jon Luqui Albisua.
Itziar Agirre Berriotxoa.
Igor Zubillaga Aguado.
Juan Luis Albisua Garmendia.
Oihane Zabaleta Mujika.
Matilde Sanz García.
Nerea Altolagirre Berastegi.
Aitor Otegi Epelde.
Natividad Nieves Medina.
Alberto La Rosa Viedma.

**Organo o comisión:** Asamblea General.
**Tipo de convocatoria:** ordinaria.
**Día:** 27/03/2017.
**Hora:** Comienzo, 19:00.
**Lugar:** Portalón del Ayuntamiento de Urretxu.

**Concejales/as de Ezkio-Itsaso que asisten:**
José Ignacio Etxezarreta Estala.
José Mª Zumarraga Esnal.
María Luisa Pildain Cenitagoya.
Iñaki Mendiguren Bereziartu.

**Concejales/as de Legazpi que asisten:**
Koldobike Olabide Huelga, Presidenta de la Mancomunidad.
Javier Iraeta Alvarez.
Eric Galvez Alvarez.
Ane Urkiola Alústiza.
Gorka Iñurritegi Lasa.
Oscar Valbuena Pascual.
Roberto Alonso Yebra.
Alberto Bezunartea Fernández.

**Concejales/as de Urretxu que asisten:**
Jon Luqui Albisua.
Itziar Agirre Berriotxoa.
Igor Zubillaga Aguado.
Juan Luis Albisua Garmendia.
Oihane Zabaleta Mujika.
Matilde Sanz García.
Nerea Altolagirre Berastegi.
Aitor Otegi Epelde.
Natividad Nieves Medina.
Alberto La Rosa Viedma.

# BATZAR OROKORRA/ ASAMBLEA GENERAL
# 2017-03-27

**Parte hartu duten Zumarragako zinegotziak:**
Mikel Serrano Aperribay.
Rosa Maiza Garrido (2. puntuan sartu da).
Antonio Navarro Perez.
Aranzazu Gonzalez San Vicente.
Ricardo Lozano Landart.
Antzine Biain Fernandez de la Reguera.
Iñigo Peñagarikano Badiola.
Josu Idigoras Eguia.
Unai Orbegozo Uribesalgo.

**Udal teknikariak:**
Iñaki Gastañares Sanchez, idazkaria.
Fernando Arakama, kontuhartzailea.
Mapi Ibargurtxi, administraria.

Idazkariak egiaztatu du saiorako behar beste quorum badagoela.

**Aztergaiak, esan-eginak eta erabakiak:**

**1. Bidezkoa bada, 2016-07-18ko bileraren akta onartzea.**
Iradokizunik eta argibiderik gabe aho batez onartu da aipatu akta.

**2. 2017ko aurrekontu orokorraren onarpena.**

Lehendakari andreak azaldu egin du 2017ko urterako aurrekontu kontsolidatua, hau da, Mankomunitatearena berarena zein UGGASArena. Aurrekontuak % 11,6ko igoera du 2016koarekiko, eta UGGASAren jarduerek % 53 eta Mankomunitatearenek % 47 eramango dute horretan.

**Concejales/as de Zumárraga que asisten:**
Mikel Serrano Aperribay.
Rosa Maiza Garrido (se incorpora en el 2º punto).
Antonio Navarro Perez.
Aranzazu Gonzalez San Vicente.
Ricardo Lozano Landart.
Antzine Biain Fernandez de la Reguera.
Iñigo Peñagarikano Badiola.
Josu Idigoras Eguia.
Unai Orbegozo Uribesalgo.

**Técnicos/as asistentes:**
Iñaki Gastañares Sánchez, Secretario..
Fernando Arakama Fernández, Interventor.
Mapi Ibargutxi, administrativa.

El Secretario comprueba la existencia de quorum suficiente para la celebración de la sesión.

**Orden del día, intervenciones y acuerdos:**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión de 18-07-2016.**
No habiendo sugerencias o aclaraciones al acta, se aprueba por unanimidad.

**2. Aprobación del Presupuesto General para el ejercicio 2017.**

La Sra. Presidenta procede a exponer el Presupuesto consolidado, esto es, de la propia Mancomunidad y de UGGASA, para el año 2017 que tiene un incremento de un 11,6 % con respecto al de 2016, y repartiéndose en un 53% a las actividades de UGGASA y en un 47% a la propia Mancomunidad.

# BATZAR OROKORRA/ ASAMBLEA GENERAL
2017-03-27

## AURREKONTU KONTSOLIDATUA

### SARREREN EGOERA ORRIA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| I | Zerga zuzenak | 0,00 |
| II | Zeharkako zergak | 0,00 |
| III | Tasak eta beste sarrera batzuk | 223.682,00 |
| IV | Transf. korronteak | 1.726.283,26 |
| V | Ondare sarrerak | 12,00 |
| VI | Besterentzeak | 0,00 |
| VII | Kapital transferentziak | 53.634,74 |
| VIII | Aktibo finantzarioak | 0,00 |
| IX | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| | **GUZTIRA** | **2.003.612,00 €** |

### GASTUEN EGOERA ORRIA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| I | Langile gastuak | 575.349,11 |
| II | Ondasun arrunt. eta zerb. | 1.076.410,89 |
| III | Gastu finantzarioak | 0,00 |
| IV | Transferentzia korronteak | 335.374,00 |
| VI | Inbertsio errealak | 16.478,00 |
| VII | Kapital transf. | 0,00 |
| IX | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| | **GUZTIRA** | **2.003.612,00 €** |

Adierazi du bete egiten direla egonkortasun– defizita-, iraunkortasun –zorra- eta likidezia –hornitzaileei ordainketak- adierazleak.

Sarrerei dagokienez, adierazi du udal ekarpenak

## PRESUPUESTO CONSOLIDADO

### ESTADO DE INGRESOS

| Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| I | Impuestos directos | 0,00 |
| II | Impuestos indirectos | 0,00 |
| III | Tasas y otros ingresos | 223.682,00 |
| IV | Transf.corrientes | 1.726.283,26 |
| V | Ingresos Patrimoniales | 12,00 |
| VI | Enajenaciones | 0,00 |
| VII | Transferencias capital | 53.634,74 |
| VIII | Activos financieros | 0,00 |
| IX | Pasivos financieros | 0,00 |
| | **TOTAL** | **2.003.612,00 €** |

### ESTADO DE GASTOS

| Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| I | Gastos de Personal | 575.349,11 |
| II | Bienes corr. y servicios | 1.076.410,89 |
| III | Gastos Financieros | 0,00 |
| IV | Transferencias Corrientes | 335.374,00 |
| VI | Inversiones Reales | 16.478,00 |
| VII | Transf.capital | 0,00 |
| IX | Pasivos financieros | 0,00 |
| | **TOTAL** | **2.003.612,00 €** |

Señala que se cumplen los indicadores de estabilidad – déficit-, sostenibilidad -deuda-, y liquidez – pago a proveedores-.

En cuanto a los ingresos indica que se ha

mantentzeko irizpidea erabili dela, nahiz atalik garrantzitsuena beste erakunde batzuetatiko transferentziak diren.
Gastuari dagokionez, zatirik handiena ondasunak eta zerbitzuak kontratatzekoa da, eta ondoren pertsonalarena eta transferentziena (diru laguntzak) dator. Gastu programei dagokienez, esfortzu nagusia sustapen ekonomikoak eramango du (% 27), ondoren enplegua dator (% 14), gero gizarte zerbitzuak (% 12), berdintasun programak (% 11), ingurumena (% 8), turismoa (% 8) eta hezkuntza (% 7,5).

Ondoren, lehendakari andreak UGGASAtik inplementatzen diren gastu-ildo nagusiak azaldu ditu, horrek dituen sarrera nagusien sorburuarekin batera.
Lehendakari andreak azaldu duenez, 2017rako proiektu nagusiak honakoak izango dira: industria suspertzeko plana (zenbait programarekin), enpresa-inkubagailuaren proiektua, energia plana eta Bertatik Bertara.

Hitz egiteko txandan Antzine Biainek, Eragilean sartu berria dela eta, Oihane Zabaletari pasa dio bere txanda.
Oihanek, hasteko, zorionak eman ditu, aurrekontuak kontsentsuaren emaitza direlako eta talde guztien artean egindako lana jasotzen dutelako. Adierazi du aurrekontuek jasotzen dutela Arcelorren itxierak eragindako inpaktuaren ondotik ekonomia suspertzeko egin nahi den ahalegina, eta positiboa iritzi dio Aldundiak gai honi egindako ekarpena. Orain lana garatzeko txanda izango da, gure herriotan lanpostuak sortzea ahalbidetuko duten planak

utilizado el criterio de mantener las aportaciones municipales, aunque el apartado más importante son las transferencias de otras instituciones.
En cuanto al gasto el núcleo importante se destina a contrataciones de bienes y servicios, luego en personal y transferencias (subvenciones). Por progamas de gasto el esfuerzo importante se lo lleva la promoción económica (un 27%), luego el empleo (un 14%), luego servicios sociales (un 12%), los programas de Igualdad ( 11%), medio ambiente (8%), turismo (8%) y educación (7,5%).

A continuación la Sra. Presidenta expone las principales líneas de gasto que se implementan desde UGGASA, y el origen de sus principales ingresos.
Los principales proyectos para 2017, indica la Sra. Presidenta que serán: el Plan de reactivación industrial ( con varios programas), el proyecto de incubadora de empresas, el plan de energía y Bertatik Bertara.

En el turno de intervenciones Antzine Biain, dada su reciente incorporación a la Ejecutiva, cede su turno a Oihane Zabaleta.
Oihane comienza felicitando que los Presupuestos sean fruto del consenso y que recojan el trabajo que se ha hecho entre todos los grupos. Indica que los Presupuestos recogen el esfuerzo que se quiere hacer en la reactivación económica tras el impacto del cierre de Arcelor, considerando positiva la aportación que hace la Diputación a este tema. Ahora tocaría desarrollar el trabajo, con el objetivo de generar planes que posibiliten la creación de puestos de trabajo en nuestros

jorratu eta lantzeko helburuarekin.
UGGASA eta UGLEtik egiten den lan ona errebindikatu du, baina kezka du Eusko Jaurlaritzatik ez ote diren murriztuko enplegu planetarako laguntzak; murrizketa horiek, oso handiak izan ez arren, gogoeta eragin beharko ligukete.
Aurreko legegintzaldian esparru sozio-sanitarioan jada abiatu ziren proiektuak aipatu ditu, exoeskeletoari lotua batez ere, bakarra baita Europa mailan, eta uste du proiektu horiek bultzatu egin behar direla, inbertsioak erakartzen saiatuz eta egin dezaketen trakzio-lana oso kontuan hartuz.
Bere taldearentzat Bertatik Bertara proiektuak duen garrantzia aipatu du. Uste du bultzatu egin beharko litzatekeela, proiektuaren sorburuetara itzuliz, sentsibilizazioa landuz eta baserritarren lanari duintasuna emanez, eta betiere bertako produktuari garrantzi handia aitortuz.
Bere taldeak berdintasunaren esparruari ematen dion garrantzia azaldu du, aipatuz hurrena beharrezko antolaketa-neurriak hartu beharko direla II. Plana inplementatu ahal izateko.
Ezkio eta Itsaso bereizteak ondorio batzuk izango ditu eta horiei heldu egin beharko zaie, eta amaitzeko esan du eskualdeak erronka garrantzitsuak dauzkala eta horiei aurre egin beharko zaiela.

Ondoren Mikel Serranok hartu du hitza. Esan du labur arituko dela, zeren eta aurrekontuek islatzen dutenez taldeek iritsitako kontsentsua, ez baitu merezi orain arte esana errepikatzea. Proiektu eta programak mamitzeko eta aurreratzen joateko unea da, are horietako batzuk aurreko legegintzalditik datozela, eta

municipios.
Reivindica el buen papel que se hace desde UGGASA y UGLE pero le preocupa que se reduzcan desde el Gobierno Vasco las ayudas a los planes de empleo que, aunque no sea una gran reducción, sí debería hacernos reflexionar.
Meciona los proyectos que ya se iniciaron en la legislatura aterior en el ámbito sociosanitario, sobre todo el exoesqueleto, único a nivel europeo, y considera qu es necesario impulsarlos tratando de recabar inversiones siendo conscientes de la labor tractora que pueden tener.
Comenta la importancia que para su grupo tiene el proyecto Bertatik Bertara, que sería necesario impulsar volviendo a los orígenes del proyecto, sensibilizando y dignificando el trabajo de los baserritarras y dando suma importancia al producto local.
Expone la importancia que su grupo le da al ámbito de la Igualdad y comenta que habrá que tomar las medidas organizativas necesarias para poder implementar el II Plan.
La separación de Ezkio e Itsaso tendrá algunas consecuencias que habrá que abordar y concluye señalando que la comarca tiene unos retos importantes y habrá que afrontarlos.

A continuación toma la palabra Mikel Serrano para comentar que será breve pues los Presupuestos reflejan el consenso alcanzado por los grupos, y no merece la pena reiterar lo ya dicho hasta ahora. Es momento de dar cuerpo e ir avanzando en proyectos y programas que ya venían algunos de la anterior

indar politikoen kontsentsua duten planak lantzeko, hain zuzen goragoko administrazioen agendara igaro daitezen, horiek dira-eta, lehendakari andreak zehaztu duen moduan, ekarpen garrantzitsuak egiten dituztenak. Itsasoren desanexioaren gaiko impassea aipatu du, esanez hurrena herriak Mankomunitatean segitzea aukeratzea espero duela. Eskualdean turismoak enplegu sortzaile gisa duen papera errebindikatu du, Bertatik Bertara proiektuan kalitatezko bertako produktu baten alde egiten duelarik lehen sektoreak hartu duen garrantziarekin batera. Enpresak teknologia berrietan prestatzearen alde egin du, eta berdintasun esparrua bultzatzearen alde halaber, adieraziz espero duela arlo ekonomikoa nolabait konpondu ahal izatea eta Emakumeen Etxea Urolaren geltoki zaharrean kokatu ahal izatea.
Azkenik, industria suspertzearen alderdiari heldu dio. Izan ere aurten, beharrak eraginda, denon inplikazioa behar da, eta bitartekoak jarri behar dira, esaterako aurrekontuetan ad hoc partida bat jarriz egin den moduan, baina bitarteko horiek gora egin ahal izango dute urtean zehar, alternatibak eta Arcelor enpresaren sail horiek balioesteko proiektuak bilatzeko lanean erakundeek, funtsean Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak, erakusten duten inplikazio mailaren arabera.

Amaitzeko, Unai Orbegozok esan du aurrekontuen alde daudela, egonkorrak, iraunkorrak eta orekatuak direla, eta orain kezkatzen gaituzten alderdi nagusiei heltzen dietela, hots, industria suspertzeari, berdintasunaren esparruari Emakumeen

legislatura, y trabajar en los planes que cuentan con el consenso de las fuerzas políticas de modo que pasen a la agenda de las administraciones superiores que son las que hacen importantes aportaciones como ha detallado la Sra. Presidenta. Comenta la situación de impasse en el tema de la desanexión de Itsaso, esperando que opte por seguir en la Mancomunidad. Reivindica el papel del Turismo en la comarca como generador de empleo, así como la importancia del primer sector en el proyecto Bertatik Bertara apostando por un producto local de calidad. Aboga por la formación a las empresas en nuevas tecnologías, y el impulso al ámbito de Igualdad, expresando su deseo de que se pueda resolver de alguna manera el tema económico y la Casa de las Mujeres pudiera ubicarse en la antigua estación del Urola.
Por último aborda el aspecto de la revitalización industrial en la que este año, por necesidad, es necesaria la implicación de todos dotando de recursos, como así se ha hecho en los presupuestos, con una partida ad hoc, pero recursos que podrán ir aumentando a lo largo del año en función de la implicación de las instituciones, Gobierno Vasco y Diputación fundamentalmente, en la búsqueda de alternativas, proyectos para poner en valor esos terrenos de la empresa Arcelor.

Por último Unai Orbegozo señala que están a favor de estos presupuestos que son estables, sostenibles y equilibrados y afrontan los principales aspectos que ahora nos preocupan como son la reactivación industrial, el ambito de la igualdad con la Casa de las Mujeres y el proyecto Bertatik Bertara.

Etxearekin, eta Bertatik Bertara proiektuari.

Hitz egiteko txanda honen ondotik, Mankomunitatearen 2017ko urteko Aurrekontu Kontsolidatua botaziora eraman, eta honako emaitza izan da:

**- ALDEKO BOTOAK:** Aho batezkoak.
**- KONTRAKO BOTOAK:**
**- ABSTENTZIOAK:**
Aurrekontua onartuta geratu da.

Tras las intervenciones se somete a votación el Presupuesto consolidado de la Mancomunidad para 2017 que obtiene el siguiente resultado:

**- FAVOR:** Unanimidad.
**- CONTRA:**
**- ABSTENCION:**
El Presupuesto queda aprobado.

**3. 2017. urterako plantila eta lanpostuen zerrenda onartu.**

Lehendakari andreak Mankomunitatearen plantilla azaldu du:

**3. Aprobación, de la Plantilla y Relación de Puestos de Trabajo para 2017.**

Expone la Sra. Presidenta la Plantilla de la Mancomunidad:

## 2017ko PLANTILLA ORGANIKOA

| Lanpostu kopurua / Nº puestos | Izena/Denominación | Kategoria / Categoría | Taldea/Grupo | Egoera /Situación | Oharrak/Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|
| **LAN KONTRATUDUN LANGILEEI GORDETAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL** | | | | | |
| 1 | Kontsumoko teknikaria / Técnica de consumo | 2 | A2 | F | |
| 1 | Administraria / Administrativa | 5 | C1 | F | |

Azaldutako iritzien ondotik, proposamena botaziora eraman eta emaitza hau izan da:

**- ALDEKO BOTOAK:** Aho batezkoak.

Tras las intervenciones se somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado:

**- FAVOR:** Unanimidad.

**- KONTRAKO BOTOAK:**
**- ABSTENTZIOAK:**

**4. Eskariak eta galderak.**

Ez da horrelakorik izan.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, lehendakari andreak amaitutzat eman du bilera, arratsaldeko zortziak eta hamar minutu direnean. Eta nik, idazkaria naizen aldetik, aztertu dena eta hartutako erabakiak erasota uzteko akta hau egin eta bertan jasotako guztiaren fede ematen dut.

Akta hau 2017ko uztailaren 4an egindako bileran onartu zen:

☒ bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.

☐ baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.

**- CONTRA:**
**- ABSTENCION:**

**4. Ruegos y preguntas.**

No se producen.

No habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Presidenta, levanta la sesión, siendo las 20:10 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

Este acta fue aprobada en la sesión del día 4 de julio de 2017:

☒ en su integridad, sin ninguna objeción.

☐ si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.